

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EGITURA METALIKOKO PRODUKTUAK FABRIKATZEKO ETA MUNTATZEKO DOKUMENTAZIOA	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0605		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Egitura metalikoko produktuen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Egitura metalikoko produktuen ezaugarrien zehaztapena		80
	Egitura metalikoko produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko materialak	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1146_3ko LB3 lanbide-burutzapenarekin: EGITURA METALIKOKO PRODUKTUAK DISEINATZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Xafilen eta profilen marraketa-, mekanizazio-, ebaketa- eta konformazio-dokumentazioa prestatzea egitura metalikoko produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko, fabrikazio- eta muntaketa-planoetatik abiatuz, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Fabrikazio-planoak interpretatzea, haietan dagoen informazioa lortuz, xafiak, profilak eta hodiak murrizteko, mekanizatzeko eta korformatzeko.

EI1.2 Xafiak, profilak eta hodiak murrizteko eta ebakitzeko prozesuak definitzea egitura metalikoko produktuetarako, fabrikazioan parte hartzen duten alderdiak identifikatuz.

EI1.3 Beroan tolesteko prozesuak definitzea.

EI1.4 Bastidoreetarako tolesturetarako, marraketa-datuertarako eta txantiloien garapenerako behar den informazioa definitzea.

EI1.5 Egitura metalikoko produktu baten fabrikazioari buruzko dokumentazioa prestatzea:

- Makina, eremu eta lan-ildo bakoitzerako informazioa garatzea, ezarritako prozesuarekin bat datozen eskuzko programazio-teknikak eta aplikazio informatikoak erabiliz.
- Produktua kodetzea behar bezala identifikatzeko eta haren norakorako.

Edukiak:

1. Fabrikazio- eta muntaketa-teknologia egitura metalikoetan.

- o Marraketa-eragiketak. Pieza diseinatze metodoak. Marraketa-lerroak.
- o Metalak oxiebaketa, plasma-arku eta laser bidez ebakitzea. Ebaketa-ezaugarriak, -ekipoak eta -parametroak.
- o Soberakinak baliatzeko sistemak. Habiaratze-teknikak.
- o Egitura metalikoko produktuen konformazioa eta mekanizazioa: ezaugarriak eta ekipoak.
- o Egitura metalikoetako muntaketa-teknikak: motak, ezaugarriak, ekipoak eta aplikazioa.
- o Fabrikatzeko eta muntatzeko prozesuen kostuak.
- o Denboren kalkulua.

2. Egitura metalikoko produktuen fabrikazioan erabiltzen diren makinaren programazioa.

- o Makinen eskuzko programazioa.
- o Makinak programatzeko aplikazio informatikoak.
- o Programazio-teknikak, lengoaiak eta CNCaren simulazioa.

3. Egitura metalikoko produktuen fabrikazioko dokumentazioaren prestatzea.

- o Diseinatutako produktuaren txosten teknikoak: sartzen diren dokumentuak eta haien prestatzea.
- o Prozesu-orriak.
- o Produktuaren AEAMa.
- o Kalitateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa.
- o Dokumentazioa sailkatzea, artxibatzea eta eguneratzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
 - 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
 - Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
 - Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.